UDALBATZA ERATZEKO OHI KANPOKO OSOKO BILKURA

UDALAK 2011ko EKAINAREN 11N UDALBATZA ERATZEKO EGINDAKO OHI KANPOKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BATZORDEKIDEAK:

ALKATEA:
Luis Intxauspe Arozamena jn.

ZINEGOTZIAK:
Gloria Mendinueta Yeregui and.
Idurre Conde Santa Cruz and.
Asier San Emeterio Otegui jn.
Kistiñe Lujanbio Galdeano and.
Aitor Miner Aginaga jn.
Iker Goenaga Gubia jn.
Beñat Amenabar Perurena jn.
Nahiara Sanchiz Arregui and.
José Pérez Dominguez jn.
Jose Ramón Chica Ramirez jn.
Estefania Morcillo Cerdan and.
Andoni Amonarraiz Gómez jn.
Jose Antonio Cuesta Sole jn.
Maria Otaegi Velez and.
Iñaki Arratibel Olaziregi jn.
Iñaki Barrio Sagastume jn.

IDAZKARIORDEA:
Pello Odriozola Zubizarreta jn

2011ko ekainaren 11n ohi kanpoko osoko bilkuraren bilera egin da Hernaniko Udaletxean, goizeko 11:00etan, aurrez deialdia egina zegoelarik. Bilera Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Pello Odriozola Zubizarreta idazkariordea.

Udaleko Batzar Aretoan, 2011ko ekainaren 11n, goizeko 11:00etan, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. artikuluan ezarritakoa betez eta Udala eratzeko bilkura egiteko, goian aipatutako zinegotzi hautatuak bildu dira. Zinegotziek aldez aurretik beren kredentzialak aurkeztu dituzte, beren nortasuna egiaztatuz, eta bateraezintasun, jarduera eta ondare ondasunen deklarazioaren aurkezpena justifikatu dute, Udalbatzako Kideen Interesen Erregistroan jasotzeko.

En el Salón de Sesiones del Ayuntamiento, siendo las 11:00 horas del día 11 de junio de 2011, en cumplimiento de lo establecido en el artº 195 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, y a los efectos de celebrar sesión constitutiva del Ayuntamiento, se reúnen los Concejales electos que al margen se expresan, quienes han presentado previamente sus credenciales, acreditando su personalidad y justificando la presentación de las declaraciones de causas de incompatibilidad, actividades y de bienes patrimoniales a efectos de su inscripción en los Registros de Intereses de los miembros de la Corporación.

Adin Mahaia José Pérez Domínguez jaunak eta Nahiara Sanchiz Arregui andreak osatu dute, haiek direlako zinegotzi hautatu zaharrena eta gazteena, hurrenez hurren, Eskualdeko Hauteskunde Batzordetik jasotako ziurtagiriek diotenaren arabera. Lehendakari gisa José Pérez Domínguez jauna aritu da, bera delako zaharrena eta, idazkari lanetan, berriz, Udal idazkariorde Pedro Mª Odriozola Zubizarreta jauna.

Horren ondotik, hautatutako Zinegotzi guztiak bertan direla egiaztatu ondoren, lehendakariak hitza hartu eta esan du mahaiak erabakitakoaren arabera boto gehien dituen hautagai-zerrendatik boto gutxien dituenerako ordena jarraituz egin behar dela jabetza hartzea. Beraz, lehenengo Bilduko zinegotziei deitu zaie.

- Luis Intxauspe Arozamena jaunak hartu du hitza:

" Kistiñe Lujanbio Galdeano, Aitor Miner Aguinaga, Idurre Conde Santa Cruz, Iker Goenaga Gubia, Gloria Mendinueta Yeregui, Asier San Emeterio Otegui, Beñat Amenabar Perurena, Nahiara Sanchiz Arregui eta ni neu Luis Intxauspe Arozamenaren izenean hitz ematen dugu gure egitekoa ahalik eta hobekien beteko dugula".

- EAJ-PNV taldeko zinegotzi hautatuak. Maria Otaegui Velez andreak hartu du hitza:

"Jose Antonio Cuesta, Andoni Amonarraiz eta ni, EAJko zinegotziak, Hernaniri eta Hernaniko Herriari leialak izango garela eta gure eginbeharrak fidelki beteko ditugula zin egiten dugu."

- PSE-EE (PSOE) taldeko zinegotzi hautatuak. Estefanía Morcillo Cerdan andreak hartu du hitza:

" Jose Ramon Chica Ramirez, José Pérez Dominguezen eta neure izenean, hitz ematen dut gure kargua betetzerakoan Konstituzioa, Autonomia Estatutua eta horien ondoriozko legeak beteko ditugula."

- Hamaikabateko taldeko zinegotzi hautatuak. Iñaki Arratibel Olaziregi jaunak hartu du hitza:

"Iñaki Barrio Sagastumek eta Iñaki Arratibel Olaziregik, gure kargua zintzo beteko dugula zin egiten dugu"

Queda formada la Mesa de Edad, integrada por D. José Pérez Domínguez y Dª Nahiara Sanchiz Arregui, Concejales electos de mayor y menor edad, respectivamente, según se desprende de las certificaciones recibidas de la Junta Electoral de Zona. Presidiendo D. José Pérez Dominguez por ser el de mayor edad, y actuando de Secretario Accidental de la misma, el que lo es de la Corporación, D. Pedro Mª Odriozola Zubizarreta.

Seguidamente, comprobado que han comparecido todos los Concejales Electos, interviene la Presidencia para decir que la mesa ha acordado que la toma de posesión debe realizarse siguiendo el orden de la candidatura más votada a menos votada, por lo que en primer lugar son llamados los Concejales de Bildu.

- Toma la palabra D. Luis Intxauspe Arozamena:

"En nombre de Kistiñe Lujanbio Galdeano, Aitor Miner Aguinaga, Idurre Conde Santa Cruz, Iker Goenaga Gubia, Gloria Mendinueta Yeregui, Asier San Emeterio Otegui, Beñat Amenabar Perurena, Nahiara Sanchiz Arregui y de mi mismo Luis Intxauspe Arozamena, juramos cumplir lo mejor posible nuestro deber".

- Concejales Electos de EAJ-PNV: Toma la palabra Dª Maria Otaegui Velez:

" Jose Antonio Cuesta, Andoni Amonarraiz y yo, concejales de EAJ, juramos fidelidad a Hernani y al Pueblo de Hernani y que cumpliremos fielmente nuestras obligaciones."

- Concejales Electos del PSE-EE/PSOE Toma la palabra Dª. Estefanía Morcillo Cerdan:

"En nombre de Jose Ramón Chica Ramírez, José Pérez Domínguez, y en el mío, prometo acatar la Constitución, el Estatuto de Autonomía y las Leyes que de ella se deriven, en cumplimiento de nuestro cargo."

- Concejales Electos de Hamaikabat: Toma la palabra el Sr. Iñaki Arratibel Olaziregi:

"Iñaki Barrio Sagastume e Iñaki Arratibel Olaziregi, juramos cumplir nuestro cargo fielmente".

Talde guztien parte hartzea amaitu ondoan, mahaiak UDALBATZA FORMALKI ERATUA DELA DEKLARATU DU.

Finalizada la intervención de todos los Grupos, la mesa DECLARA FORMALMENTE CONSTITUIDA LA CORPORACIÓN.

Horren ondotik, alkatea hautatzeari ekin zaio eta, horretarako, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. atalean ezarrita dagoen arautegiarekin bat etorriz, alkate izateko ondoko zinegotzi hauek izendatu dira hautagai:

Acto seguido se procede a la elección de Alcalde, a cuyo efecto, de acuerdo con la normativa establecida en el artículo 196 de la citada Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, se proclaman candidatos para la Alcaldía a los Concejales que seguidamente se relacionan.

HAUTAGAIA / TALDE POLITIKOA

Luis Intxauspe Arozamena jn. - Bildu

Andoni Amonarraiz Gómez jn. - EAJ-PNV

Estefanía Morcillo Cerdan and.
PSE-EE (PSOE)

Iñaki Arratibel Olaziregi jn.- Hamaikabat

CANDIDATO / GRUPO POLÍTICO

D. Luis Intxauspe Arozamena - Bildu

D. Andoni Amonarraiz Gómez - EAJ-PNV

Dª. Estefanía Morcillo Cerdan
PSE-EE (PSOE)

D. Iñaki Arratible Olaziregi - Hamaikabat

Bertaratutako zinegotziek bozketa sekretua egin dute eta, emandako boto guztien zenbaketa eginda, hau da lortutako emaitza:

Los Concejales asistentes proceden a la votación por papeleta secreta y, efectuando el recuento de los votos emitidos, se obtiene el resultado siguiente:

HAUTAGAIA / LORTURIKO BOTOAK.

Luis Intxauspe Arozamena jn ............................. 9.

Andoni Amonarraiz Gomez jn.............................. 3.

Estefanía Morcillo Cerdan and.............................. 3.

Zuriak ................................................................. 2.

CANDIDATO / VOTOS EMITIDOS.

D. Luis Intxauspe Arozamena.......................... 9.

D. Andoni Amonarraiz Gomez .......................... 3.

Dª Estefanía Morcillo Cerdan ............................ 3.

Votos en Blanco................................................ 2.

Luis Intxauspe Arozamena hautagaiak, Bilduko zerrendaburuak, gehiengo absolutoa lortu duenez, LUIS INTXAUSPE AROZAMENA IZENDATU DA UDAL HONETAKO ALKATE. Beraz, mahaiburuan esertzeko eta karguaz jabetzeko eskatu zaio.

Visto que el Candidato Luis Intxauspe Arozamena, cabeza de lista de Bildu, ha obtenido la mayoría absoluta, es PROCLAMADO ALCALDE DE ESTE AYUNTAMIENTO D. LUIS INTXAUSPE AROZAMENA, a quien se le invita a ocupar la Presidencia y tomar posesión del cargo.

Gero LUIS INTXAUSPE AROZAMENA zinegotzi hautatuak Hernaniko Udaleko ALKATE kargua onartu du eta karguaz jabetu da, udalbatza osoaren aurrean, indarrean dauden xedapenak ematen dioten prerrogatiba, eskubide eta betebeharrekin, eta honako hau esan du:

A continuación el Concejal electo D. LUIS INTXAUSPE AROZAMENA acepta el cargo de ALCALDE del Ayuntamiento de Hernani y toma posesión del mismo ante el Ayuntamiento Pleno de la Corporación que le confiere esta posesión, con todas las prerrogativas, derechos y obligaciones que le atribuyen las disposiciones vigentes, manifestando lo siguiente:

Luis Intxauspe Arozamena jaunak hartu du hitza:

Toma la palabra el Sr. Luis Intxauspe Arozamena:

“Zorionak guztioi, zuen ahaleginari esker posible egin duzuelako Bildu koalizioak alkatetza lor dezan.

Nire egiten dut alkate ardura eta legeak horrela aginduta zin dagit karguari dagozkion egitekoak zintzo, gogoz eta ilusioz beteko ditudala.

Euskal Herrian aro berri batean sarturik gaude, aldaketaren garaian. Ilusio eta itxaropenez kargaturik dago giroa eta zuengan, herritarrongan, indar berezi bat nabari daiteke, maiatzaren 22an Bildu koalizioa emaitza ikusgarriak lortzera eraman duena eta gaurkoan alkatetza hartzera.

Pozez gainezka eta ardura osoz hartzen dugu zuen mandatua Hernaniko Bilduko lan taldekideok, eta prest gaude alkatzetzak suposatzen duen ardura handiari behar bezala erantzuteko. Gaurtik aurrera zeregin honi helduko diogu.

Lehentasunezko erronka, hemen eta Euskal Herria osoan, egoera demokratikoa lortzea izango da eta horri begira lan egingo du udal honek, guztion eskubide zibil eta politikoak onartuak izan daitezen. Horregatik bortxa adierazpen oro behin betikoz eta baldintzarik gabe desagertu dadin eskatzen dugu, baita mehatxuak, presioak, jazarpenak, atxiloketak eta torturak ere.

Gure udala herri honen normalkuntza politikoan lehen mailako eragilea izango da eta gure ekarpena egingo dugu zabaldutako aukera historikoa gauzatzeko helburuarekin eta gaur behatz puntekin ukitzen ari garen konponbidea, etorkizuneko Euskal Herria eraikitzeko oinarria izan dadin.

Bildu koalizioa osatzen dugunon proiektua, abertzalea, ezkertiarra eta soberanista, herritarron esku jarri nahi dugu.

Guztiontzako egingo dugu lan eta guztiokin, parte hartze demokratiko eta zabala bultzatu nahi dugulako datozen urteetan, elkarrekin eztabaidatuz, guztion parte hartzea bultzatuz, guztion artean erabakiz eta horretarako

“Enhorabuena a todas y a todos por el esfuerzo realizado para que la coalición Bildu alcance la Alcaldía.

Asumo el cargo de alcalde y, por mandato legal, juro cumplir las funciones del cargo con lealtad, empeño e ilusión.

En Euskal Herria nos encontramos actualmente inmersos en un nuevo periodo, un periodo de cambios. Se respira en el ambiente ilusión y esperanza, y se percibe en vosotros y vosotras, en la ciudadanía, una fuerza especial que es la que ha llevado a la coalición a Bildu a conseguir unos resultados espectaculares el 22 de mayo y a asumir la alcaldía en el día de hoy.

Las personas que integramos el equipo de Bildu de Hernani aceptamos vuestro encargo muy ilusionados y profundamente comprometidos, dispuestos a responder con diligencia a la gran responsabilidad que supone la alcaldía. Comenzaremos a trabajar a partir de hoy mismo

El reto prioritario, tanto aquí como en toda Euskal Herria, es lograr un escenario democrático. Este Ayuntamiento trabajará para alcanzarlo, para conseguir que se reconozcan los derechos civiles y democráticos de todos y de todas, por lo que pedimos la desaparición, de una vez por todas y sin condiciones, de toda manifestación de fuerza, así como de amenazas, presiones, acosos, detenciones y torturas.

Nuestro ayuntamiento será impulsor de primer orden en la normalización política de este país; efectuaremos nuestra propia aportación con el objeto de hacer realidad la oportunidad histórica que se nos presenta y para que la solución al conflicto, que hoy por hoy apenas tocamos con la punta de los dedos, sea la base para la construcción de la Euskal Herria del futuro.

Queremos poner a disposición de toda la población el proyecto de las personas que integramos la coalición Bildu, un proyecto abertzale, de izquierdas y soberanista.

Trabajaremos con y para toda la ciudadanía, porque durante los próximos años queremos impulsar una participación amplia y democrática, debatiendo conjuntamente y promoviendo la participación de todos y de todas, tomando las

bitartekoak jarriz.

decisiones conjuntamente y poniendo los medios necesarios para ello.

Herrian txertatutako udala nahi dugu eta herritar aktiboak nahi ditugu, erabakitzaileak, eta horren aldeko apustua egingo dugu.

Queremos un ayuntamiento insertado en la sociedad y una ciudadanía activa y decisoria. Apostaremos fuertemente por ello.

Aldaketa politiko eta sozialaren aldeko borondatean oinarrituz, beste urrats bat egitea dagokigu orain: bide hori elkarrekin egitea, gazteekin, hirugarren adinekoekin, kultur eta kirol taldeekin, auzo elkarteekin, herrigintzan eta auzolanean aritzeko prest zaudeten guztiekin. Guztiontzat zabalik izango dira udal honen ateak eta gure eskuak ere bai.

Partiendo de la voluntad de cambio político y social, nos corresponde ahora dar un paso más: haremos el camino conjuntamente, contando con la juventud, con la tercera edad, con los colectivos culturales y deportivos, con las asociaciones vecinales, y con todas aquellas personas dispuestas a trabajar por el pueblo. Las puertas de este ayuntamiento permanecerán abiertas para todos y todas y nuestras manos tendidas.

Bukatzeko, gaur gure artean nagusi den ilusio eta itxaropenaz egin dugu alkatetza hartzeko ekitaldia, baina gaurko egunean hasten dugun ibilbide honetan, konpromisoaren eta parte hartze kolektiboaren beharra izango dugu emaitzak benetan emankorrak izan daitezen. Hori da eskatzen dizueguna. Gurekin, Kix, Aitor, Idurre, Iker Glori, Beñat, Asier, Nahiara eta ni neu Luixekin lanera biltzea.

Para finalizar quiero decir que este acto se está desarrollando en un ambiente marcado por la ilusión y el optimismo, que es lo que hoy impera entre las personas que nos encontramos aquí, sin embargo, en la travesía que hoy emprendemos necesitaremos del compromiso y la participación colectiva para conseguir unos resultados realmente fructíferos. Esto es lo que os pedimos, que os unáis a nosotros y nosotras, a Kix, Aitor, Idurre, Iker, Glori, Beñat, Asier, Nahiari y a mi, Luix, para trabajar conjuntamente.

Berriro denok zorionduz eta denei eskerrak emanez bukatutzat emango dugu gaurko udalbatza.

Enhorabuena y gracias nuevamente a todos y a todas, y así damos por finalizado el pleno de hoy.

Eskerrik asko.”

Eskerrik asko.”

Bilera goizeko 11:15etan bukatu da eta, nik, idazkariordea naizenez, akta egin eta ziurtatu egin dut.

Siendo las 11:15 horas, se levanta la sesión, de todo lo cual se extiende el presente acta, el que como Secretario Accidental, certifico.